


MANUEL LEKUONA Saria

Premio MANUEL LEKUONA



EUSKO
IKASKUNTZA
Asmoz ta Jakitez



Enkarni Genua Espinosa




39

MANUEL LEKUONA Sarria
Premio MANUEL LEKUONA



2022



EUSKO
IKASKUNTZA
Asmoz ta Jakitez

Egilea: Enkarni Genua Espinosa



Remigio Mendibururen brontzezko eskultura
Escultura de bronce de Remigio Mendiburu

GENUA ESPINOSA, Enkarni

Enkarni Genua Espinosa / Enkarni Genua Espinosa, Urt Zubiaurre Otamendi. - Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2023. - 64 or. : ir. ; 21 cm. - (Manuel Lekuona Saria = Premio Manuel Lekuona ; 39). - Testuak euskaraz [testigantzak gaztelaniaz]. - Manuel Lekuona Saria 2022

ISBN: 978-84-8419-305-0

ISBN: 978-84-8419-306-7 (online)

1. Enkarni Genua – biografia 2. Bibliografia – Enkarni Genua
I. Eusko Ikaskuntza II. Saila III. Izenb.

Azaleko argazkia: Familiaren artxiboa

Hauen laguntzarekin: Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Nafarroako Gobernuia, Eusko Jauriaritza eta Zientzia eta Berrikuntza Ministeritza.

EUSKO IKASKUNTZA

Miramar Jauregia – Miraconcha, 48 – 20007 Donostia

www.eusko-ikaskuntza.eus - ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus

ISBN: 978-84-8419-305-0

L.G. D 108-2023

Maketazioa, inprimaketa eta koadernaketa: Michelena artes gráficas. Astigarraga (Gipuzkoa)

Datu biografikoak	5
Une gogoangarriak	29
Bibliografia	53



Datu biografikoak

Besarkada bat bidean lagundu didazuen guztioi.
Denok ez zaudete liburuxka honetan,
baina bai nire bihotzean.

Poz galanta hartu dut Eusko Ikaskuntzak nire Biografia idazteko eskatu didanean. Nire barruan arakatu eta lerro hauetan islatu nahiko nituzke garai baten historia, gerraostea, ofizio/arte baten ezaugarria, txotxongilogintza, eta euskal kultura zabaltzeko modua.


Donostian jaio nintzen 1942ko apirilaren 15ean. Nire ahizpa bakarra 2 urte nagusiagoa zen, eta goizero egiten zuena sumatu bezain laster (jantzi, maletatxoa hartu eta eskolara joan), ni etxean aspertuta gelditzen nintzen bitartean, ez nuen dudarik eduki. “Eskolara joan nahi dut ahizpa bezala. Eskolaraaa!” Nire amak lortu zuen salbuespen txiki bat, eta 3 urterekin zoriontsu nengoen. Maletatxoa, arkatza, koadernoak, margoak eta aurrerago Jose Dalmau Carlesen *La Enciclopedia* eskuan, hasi nintzen eskolara joaten. Eta buruan ikasteko grina eta amets asko, tartean, ezinezkotzat nuen zerbait: maistra izatea.

Garai hartan Espainiako hiri batzuetan, Donostian ere bai, baziren eskola berezi batzuk. Oraingo ikuspegitik inork ez lituzke onartuko, baina gerraosteko garai gogorretan inork ez zituen kolokan jartzen, nahiko arazo baitzuten familiek bizia aurrera ateratzeko. Hain iluna zen orainaldia ze alaben etorkizuna laino artean zegoen guztiz.

Maila sozial desberdineko neskak joaten ginen eskola horietara: erdi-eta goi-mailako familien alabei “señoritas” deitzen zitzaien; behe-mailako familien alabei, aldiz, pobreak edo babes-tuak. Bigarren taldekoa nintzen ni.

Honela kontatzen du Pili Ciriza eskolako lagunak:

Cursé mis estudios, por así decirlo, en el Colegio del Sagrado Corazón de Jesús de San Sebastián. Era un colegio partido en dos. El de las de “pago” llamadas señoritas y el de



las pobres, llamadas protegidas. A las ricas les enseñaban las Madres, monjas con dote y una toca con chorreritas alrededor de la cabeza. A nosotras, las pobres, nos daban clases las legas; corazón 5 estrellas, sonrisa perenne y cubiertas con una simple toca.

El impresionante edificio del colegio era para las señoritas. Nosotras íbamos a un edificio entre las cocinas y una especie de barranco.

Las ricas iban al recreo en un alto de la propiedad con árboles y columpios con hermosas vistas al mar. Nosotras íbamos allí solamente una vez al año. Los demás días jugábamos en la carretera evitando las curvas.

Cada Primer Viernes de mes, las ricas tenían la oportunidad de ejercer la virtud de la Caridad y las pobres la virtud del Agradecimiento. Nos colocaban a lo largo de la terraza y a lo lejos se abría una puerta y de allí salían las niñas ricas (de nuestra misma edad). Nos leían la etiqueta que llevábamos en el pecho con sus nombres. Entre risas decían “Oye yo ya he encontrado la mía. Aquí está la tuya”. Un breve paseito, un par de preguntas indiscretas, entrega de un bollo con algo y un adiós hasta el mes que viene.

La víspera de esos humillantes días yo, después de rezar el “Jesusito de mi vida”, le pedía al txiki milagroso que al día siguiente me regalara un catarro, pero mis indómitos genes navarros no me ayudaban en mi cometido de hacer txikarra.

Pili Ciriza

Baina gauzarik garrantzitsuena hauxe zen: señoritek Batxilergoko titulua eskuratzen zuten bitartean, guk Kultura Orokorra izenekoa jasotzen genuen.

Beraz, eskola bukatzean, nik neuk eta gainerako ikaskide askok domina mordoa eramaten genituen gure curriculumean: Santa Maria Gorettirena, Mariaren Alabarena etab. Eta gure eza-gutzak zabaltzeko takigrafía eta mekanografía ikasten genituen, eta edozertan aritzen ginen lanean etxera pezeta gutxi batzuk eramateko. Ni eskolatik atera nintzenean egoera hori pixkanaka

aldatzen joan zen. Baina hor gelditu ziren euren ikasketetan aurreratu gabe ehundaka gazte.

Hala ere gure ondoan bazeuden konbentuan doterik gabe sartu zirenak: “Hermanitas”, maitasuna ematen zigutenak. Sor Etayo, Sor Hidalgo eta Sor Anoro, oraindik ditut gogoan.

Eskolako egoera hori kenduta, gure haurtzaroa zoriontsua izan zen. Ez genuen kapritxo handirik, baina funtsezko gauzak bai. Eta, gainera, Kontxako hondartza zen gure jolastokia.

Orduko neskok, soldata prekarioak izan arren lanbide bat bagenuenok, alde batera utzi behar izan genuen lana ezkontzean. Legez edo ohituraz, etxean omen zeuden gure zereginak. Lege horrek nire alde jokatu zuen orduan, satisfazio eta lasaitasun handiz egin bainuen...


Gure seme-alaben heziketa

Hiru etorri ziren bata bestaren atzetik: Enkarni, Manu eta Juan. Eta munduko tarte osoa izan nuen haientzat. Otorduak prestatu, etxea jaso, paseatzera joan, beste umeekin parkean jolastu, ipuinak irakurri. Kezkarik gabe gozatu nuen horretaz. Inor gaixotzen bazen, hantxe nengoen ni prest, apururik gabe. Horrela, banan-banan ikastolara joaten hasi ziren arte.

Eta nire txikitako ametsa, maistra izatekoa, nire buruan bueltaka zebilena?

Ba amets hura nekatu zen bueltaka aritzeaz, eta egun batean etxeko sukaldean heldu zidan mantaletik. Aurrez aurre egin zidan galdera: “Baina ez al zenuen maistra izan nahi? Zer uste duzu, atea jo eta behar duzun titulua ekarriko dizutela etxera? Espabilatu, neska, has zaitez ikasten. Bizitza osoa daukazu aurretik”.

Argi eta garbi ikusi nuen. Manolo bazkaltzera iristerako, prest nuen nire proposamena. Hunkituta nengoen ideia berriei esker.



Eta biok heldu genion Batxilergoa ikasteko lanari, Manolok berehala ulertu baitzuen nire nahia zein zen. Eta berehala jarri zen nire alde, beti egin duen moduan. Horretan, beti izan gara senar-emazte modernoak. Gure etxean kontua ez zen “besteari” laguntzea, ardurak eta proiektuak familian gauzatzea baizik.

Eta ekin nion nire kasa ikasteari eta Institutura azterketara joateari. Lehen eta bigarren maila gaindituta neuzkan eskolan egingdako ikasketekin baina batxiller osoa menderatu arte izerdi asko bota nituen.

Eta... AZKENEAN 1974an hasi nintzen Historia eta Geografia ikasten Donostiako EUTGn.

Ikasketa horiek benetan izan ziren gustokoak niretzat. Irakasleek lezio interesgarriak ematen zizkiguten, eta irakurtzen eta ikasten jarraitzeko eskatzen ziguten gainera. Ikastea ikertzea zen, jakintzak pilatzea, nire iragana eta oraina hobeto ezagutzea. Mariasun Urzainki, Orella, Pepe Estevez etab. gogoan ditut.

Ikaskideen taldean denak ziren ni baino 10-15 urte gazteagoak. Behin esan nien ez nuela irakasgai guztietara aurkezteko asmorik, eta asko haserretu ziren. Behartu egin ninduten, esanez, haiekin batera hasi eta bukatu behar nuela karrera. Aipatu behar ditut Luis Enrique Rodríguez San Pedro, María Jesús Calvo (gazte bizkorra oso, auto istripuz hil zena karrera amaitu eta gutxira), Luisi Buldian, María Rosa, Pili Pildain, eguerdiko klaseak kalkoz kopiatzen zizkidatenak, nik seme-alaben bila joan beharra nuelako. Haien bikainekin bezainbeste pozten ziren nire nahikoeekin. Honela oroitzen du aldi hura Luis E. Rodríguez San Pedrok, Unibertsitateko adiskideak:

Enkarni llegaba corriendo a clase con un anorak blanco con capucha. Eran los Estudios Universitarios y Técnicos de Guipúzcoa en Mundaiz, entre 1974 y 1979. Un apacible jardín japonés, con dos torres de despachos y clases en edificios modulares de madera y ladrillo.

Los estudiantes nos agolpábamos en aulas saturadas, de mas de cien alumnos en los primeros cursos. Porque en

aquella década la Historia estaba de moda y soñábamos que el conocimiento del pasado nos ayudaría a una convivencia más pacífica. Y Enkarni llegaba entre desayuno y comida de mujer casada con algunos años más que la mayoría de los estudiantes y atenta a 7 cosas. Un puzzle vital de hijos, marido, clases, guiñol vocacional, y aprendizaje de euskera. Y llegaba en coche y se marchaba en coche para otra tarea y antes de la 1 del mediodía: vitalista, desbordada, desbordante y a todo trapo. Y entre curso y curso y entre cosa y cosa, quedaba tiempo para organizar excursiones a Deva para trabajos sobre portadas góticas o llegamos a Laguardia, por lo mismo, con Manolo Gómez al volante. Y con aquella energía y aquél tesón Enkarni fué superando toda la carrera, que era un plato más de sus dedicaciones de cada día. Y nos licenciamos, tras riguroso examen y revalida de todas las asignaturas un 7 de Julio de 1979 en Deusto, con ola de calor y bochorno, aunque no se hablaba entonces del cambio climático. Recuerdo a Enkarni Genua como una seductora personalidad creativa, en medio de aquellos años universitarios políticamente tan conflictivos con el marco sentimental de un País Vasco que se nos fué.

Luis E. Rodríguez-San Pedro Bezares
Universidad de Salamanca

1979an, Lizentziatura amaitu berri, Donostiako Larramendi Ikastetxean hasi nintzen lanean. “Historia Orokorra” irakasten nuen BBBko lehenengo mailan (14-15 urte). Nerabe “zintzo” horiek, irakasle berriak ez zuela inoiz klaserik eman jakin zute-nean, barre egin zuten, hasiberriari adarra jo behar ziotela iritzita. Ez zekiten ordurako urte dezente neramala oholtza gainean, eta horrek nahikoa eskarmentu suposatzen zuela klase bat aurrera eramateko. Ikastetxeko giroa zoragarria zen, irakasleak elkarren lagun ginen, Ansorena, Txema Vitoria, Koruko Aizarna, Ane González, Mariaje Urmeneta, Amaya Casares, Bego Berra etab. eta izugarri disfrutatu nuen hainbeste urtez amestutako ogibidea-rekin. Urte gutxira Magisteritza Eskolatik deitu zidaten, Adierazpen Plastikako ikastaro bat eman behar nuela eta. Printzipioz egun batzuk baino ez ziren. Halere, hainbeste izan ziren azkenean ze aukera egin behar izan bainuen. Magisteritza Eskolan ere irakasle. Eta nerekin batera Xabier Egaña, Antton Zubiaurre, Jesus Mari Goñi, Mikel Amas, Imanol Urbieta, Fermin Leizaola...

Eta antzerkia?

Honetan bai izan zutela meriturik eskolako mojek.

Gaztetxo ginelarik, mutikoeekin harremanetan hasi ez gintezen, mojek *La Dominical* izeneko asmatu zuten. Igande arratsaldeetan aisialdiko bilera bat antolatzen zuten, eta bertan diskoak jarri eta gure artean dantzan aritzen ginen neskok. Eta antzerkira ere egiten genuen. Eszenatokira igo nintzen lehen aldian, jakin nuen ezin izango nuela handik erraz jaitsi. Eta ez hori bakarrik. Oholtza baten gainean ezagutu nuen Manolo. Hauxe dio berak:

En los bajos de la Parroquia del Antiguo de San Sebastián durante las décadas 50-60 se desarrollaban muchas actividades de todo tipo: recreativas, culturales, deportivas.

Un grupo de chicos hacíamos teatro con Benjamín Irigoyen. Las obras de la Galería Salesiana eran solamente para ser representadas por chicos y durante bastante tiempo veníamos diciendo a Benjamín que estábamos hartos de actuar para la gente del Barrio chicos solos y que por favor incorporara chicas al grupo.

Benjamín sabía que su novia María Jesús Calonge dirigía a un grupo de chicas que es de suponer estaban cansadas de hacer teatro de chicas solas, así que les invitó a trabajar con nosotros. Y allá llegaron: Juana Mari Unanue, Luchy Zabaleta, Lurdes Ochoa, Pili Abarca y Enkarni Genua. El plan cambió por completo. Nosotros contentos y ellas también.

Nos propusimos representar CARLOTA de Miguel Miura y que Enkarni podía ser la protagonista. El estreno fué el día 31 de Octubre de 1960. Carlota era asesinada por su marido, el Sr. Barrington a quien representaba yo.

Después de la representación salimos juntos del teatro. A partir de ese momento empezó la relación entre Enkarni 18 años y yo 22 que ha durado hasta el día de hoy, compaginando FAMILIA, HIJOS, NIETOS, TRABAJO, ESTUDIO, TEATRO y TITERES.

Manolo Gómez

Eta euskara? Eta txotxongiloak?

Antzerkiaren eskutik heldu ziren. Gezurra dirudi, baina nik neuk, Donostian sortuak, ez nekien euskara zer zen ere. Nire aitona Iñaxio, arotza, ez nuen ezagutu. Hark ez zekien gazteleraz, eta gerran zehar euskaraz aritzea, beldurrez, alabak debekatu zion. Haren azken urteetan isilik egon zen: “Castellano no entender, euskera no hablar. Hau bizimodua!” esaten omen zuen gizajoak.


Baina gure alaba zaharrenari, Enkarniri, ikastolara joateko garaia iritsi zitzaion

Orduantxe hasi zen martxan eskola berria auzoan: Jakintza ikastola. Pedagogia berria baliatzen zuten, eta hara joaten ziren gure lagunene seme-alabak. Animatu arte ez genuen jakin ikastolan euskeraz aritzen zirenik. Ai ama! Guk ez genuen ideiarik txikiena ere, ez nik ezta Manolok. Ba ikasten hasi beharko! Mari Karmen Garmendia ormaiztegiarra, orduan EUTGko ikasle zena, aukeratu zuen Patxi Altunak gure etxera etortzeko. Lehen egunean kei-nuen bitartez ikasi genuen lezioa: “Hau behatza da; hauek behatzak dira”. Pixka bat ausartu ginen baina, handik gutxira “Lasa Jaunaren kotxeari gurpil bat atera zitzaion” esan zigunean, zulora erori ginen berriz. Ez zen ez kontu erraza. Baina... Tira! Aurrera!

Junto con las clases de Mari Karmen, Feli Etxeberria nos animó a ir a Amezketa a casa de Lontxo Amundarain y Pepi Zubillaga. Con ellos practicábamos todo el día. Nuestros dos hijos, Enkarni y Manu, iban a la ikastola porque las andereños y la dirección del Centro aceptaron admitirlos ese mes como alumnos. Nosotros íbamos a la Campa de San Martín, junto al Txindoki, Enkarni embarazada del tercer hijo, para hablar con todo el que pasara por allí y a construir un nuevo títere Otso Bishente, con nuestro pensamiento en que ese títere, al igual que nosotros hablara en euskera.

Manolo Gómez

Bi urte geroago, 1971n, ikastolak antolatutako jaialdian eta andereñoekin adostuta, haur guztientzat antzetzu genuen “*Txispa eta bere lagunak ikastolan*”. Orduantxe jaio zen Txotxongillo Taldea.



Eta sekulako eztanda izan zen hura. Lehen emanaldia amaitzean, Donostiako beste bi ikastola etorri ziren emanaldi eske, eta handik eta hemendik zabaldu zen bikote batek txotxongilotalde bat gauzatu zuela eta txotxongiloek euskaraz egiten zutela. Albistea iritsi zen andereño batzuegana. Garai hartan Jaxinto Setienen inguruan biltzen ziren beren prestakuntza hobetzerako, (Joanes Etxeberri Andereñoen Erresidentzian ibilitakoak) eta eskaerak heldu zitzaizkigun; baietz erantzun beharreko eskaerak, noski. Izan ere, nor-nori-nork ikasten ari ginen bitartean jabetu ginen euskara, mintzatzeko modu konplikatu hura, gurea ere bazela, gure herriarena zela. Eta guk geuk ere hizkuntzari lagundu geniezaiokeela jabetu ginen. Gurrpiltxo txiki bihurtu ginen makina handi horretan Eta erabaki genuen...

Horretarako prestatzea

Bartzelonara joan ginen lehenik. Hiri hartan, Nova Cançon catalana eta Rosa Sensat eskolaren bueltan, txotxongilo-mugimendu bat eratzen hasia zen. San Esteve de Palau Torredara heldu ginen, Joan Baixas eta Teresa Calafellen etxera (Joan erreferentzia izan da eta bada Kataluniako zein nazioarteko txotxongilogintzan). Bisita hark mundu berria zabaldu zigun parez pare. Elkar agurtzean, Joaneke lehen liburua oparitu zigun. Hona hemen liburu horretan idatzi ziguna:

Per a Enkarni i Manolo, pares de una possible-futura-probable-magnífica tradició de titelles euskaldunes i perquè aixó sigui ben aviat.

Putxinellis Claca y amb tot l'afecte
d'en Joan i la Teresa Baixas

Eta bideari ekin genion. Une hartan gure taldeko txotxongiloak soilik aritzen ziren euskaraz, eta gero eta eskaintza hobea eman nahi genuen, gero eta anitzagoa. Eta ideia bat genuen buruan: txotxongilo izeneko “zera” hori garatu. Ohartu ginen Paristik gertu, Charleville Mesièrre, bi urtetik behin Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia antolatzen zela. Antza, mundu osoko konpainiak elkartzten ziren bertan.

Sabiendo que en septiembre de 1976 se celebraba en Francia el Festival Internacional de Marionetas reservamos parte de nuestras vacaciones, para asistir a este evento.

Como era costumbre de la familia Gómez-Génua las vacaciones no se improvisaban. Se organizaban. Y siempre juntos.

Además de las representaciones había conferencias, exposiciones, etc. Y lo que llamaban “Carte de Festivalier” para acceder a los espectáculos diarios. No a todos porque cada día en el Festival había más de una docena.

El Festival para unos espectadores, curiosos, como nuestros hijos y unos aprendices, Enkarni y yo, era un lujo. Descubrimos todo un mundo porque asistimos ese año alrededor de 25 espectáculos de distintos países, de distintos formatos y técnicas y para distintas edades. No había duda de que en el mundo del teatro de títeres había mucho que aprender y, como no, mucho que mostrar.


Vimos Compañías de Alemania, Portugal, Rumanía, Francia, Norteamérica, India, Japón y fue un gran descubrimiento. Hubo conferencias, libros para comprar, contactos. Prometimos volver y lo hicimos. 8 veces más. Una auténtica Escuela.

Manolo Gómez

Lehen emanalditik jada, 1971tik, argi genuen gure txotxongiloak **euskaraz** egingo zutela. Nahiz eta, arrazoi horrexegatik, hainbat erakundek erreparoa jarri. Garraldatik hasi eta Muskizera arte, Nafarroako Erribera guztian barrena (Ablitas, Castejón, Cortes, e.a.), euskara izan da gure baliabidea.

“*Euskaraz? Baina ume hauek ezer gutxi dakite*” —esaten zigiten—. Ez dio axola, erantzuten genuen, seguru ulertuko dutela guk esandakoa. Eta halaxe suertatzen zen.

90. hamarkadan, Nafarroako Gobernuak, Sole Erbitik antolatuta, lurraldeko ikastetxe guztiei eskaintzen zien 3 funtzio



desberdin jasotzeko aukera: antzerkia, txotxongiloak, pailazoak... Baina euskaraz behar zuten izan. Gure taldea beti zegoen aukeratu en artean.

Eskoletara joan baino lehen, kontatu behar nuen ipuina bidaltzen nien irakasleei, baita diskoa bere abestiekin. Material horrek laguntzen zien emanaldia prestatzen. Gu iristerako, ikasleek bazez kizkiten argumentua eta kantak, eta dena primeran joaten zen. A ereduko maisu-maistrek, batez ere, material gutxi zuten eskura, eta asko estimatzen zuten laguntza hura. Eta umeez ikaragarri atsegin zuten zerbaitekin lotzen zuten euskara, hau da, txotxongiloekin. Milaka gutun eta marrakzi jaso dut haiengandik. Eta nik erantzun. Gogoan dut Cortesko mutiko bat, eskutitz hau idatzi zidana;

ERREKA MARI ZERMUZ?
JAN GELA, KOMUNA, ZUZENDARITZA, IRAKASLEEN GELA.
TESCRITO EN VASCO.


Eta beste eskutitz hau:

ENKARNI. HERENSUGEA MUCHO MALO DA.

Argi eta garbi ikusi genuen txotxongiloaren arteak hamaika aukera ematen zituela, sormena pizten zuela denengan. Eta ohartu ginen, gure txotxongiloek euskaraz egiteaz gain, arte horretara gerturatzeko bideak gauzatu behar genituela.

Eta **Erreka Mari** jaio zen. 51 urte hauetan 28 ekoizpen gauzatu eta antzeztu ditugu. Baina hemen Erreka Mariren prozesua azalduko dizuegu adibide bezala:

En 1978, Enkarni tuvo la feliz idea de recuperar para nuestro trabajo un personaje de la Mitología vasca, una LAMIÑA y escribió un cuento que tituló ERREKA MARI, EUSKAL HERRIKO AZKEN LAMIÑA. Esta historia está basada en dos puntos: El rechazo al diferente y el cuidado de la naturaleza. Con ellos, nos planteamos lo difícil que sería que alguna lamiña viviera entre nosotros. Por eso, no ha perdido actualidad desde su estreno. Además del tema hubo también variación en la forma de presentarlo.



El espacio no fué el tradicional castelet de guiñol. Con unas telas de colores Enkarni diseñó los montes de Euskadi y con variedad de verdes, y azules suaves el río donde vivía Erreka Mari. Utilizamos escaleras como soporte del río y del pueblo de Martín.

Los títeres no eran de guante. Eran marotes manejadas desde abajo y mantenidas con una mano y la otra, la del titere/titiritero servía para manejar los objetos precisos; peine de Erreka Mari, boina de Martín, etc. Las vecinas, dos escobas decoradas sus caras a modo de vecinas criticonas, que no quieren que Erreka Mari viva cerca de ellas porque “es diferente”.

El éxito de este montaje fue tal, que rápidamente se hizo familiar en todas las ikastolas, escuelas y casas de Cultura de Euskadi. Se convirtió en un Comic editado por Erein, con dibujos de Jesús Lucas, en un disco editado primero por Iñaki Beobide y luego por IZ (productora de Fernando Unsain) y en 1986 ganó el primer premio en un Certamen convocado por el Gobierno Vasco transformado en Opera por la música de Juan Cordero Castaños y fué estrenado en las capitales del País Vasco.


Desde el día de su estreno hasta hoy, ese cuento no ha dejado de representarse. Ha viajado a numerosos festivales y pasado el charco. Siempre con éxito.

En estos momentos se sigue publicando y representado por nosotros y por Rosa Martínez, una excelente titiritera que la lleva en su repertorio.

Y desde el mes de Octubre de 2022 el Ayuntamiento de Berriz (Bizkaia) la ha colocado en forma de escultura de madera en su maravilloso Parque Bótanico Tecnológico para que pueda ser visitada por todos sus amigos.

Con Erreka Mari inició Txotxongillo un ciclo nuevo en lo que serían sus producciones posteriores.

Manolo Gómez



Eta, bat batean, Erreka Mari iritsi zen. Ordurako jaiotzen ikusiak nituen hainbat panpina: Nicolas untxia, Jaxinto eta Joxepa, eta nola ez Otso Bixente, Txindoki magalean. Panpin horien jaiotze prozesu magikoa zen niretzat. Etxeko sala zein sukaldea trastez betetzen ziren: buztina, paperak, kola, pinturak, eskaiola, etab.

Lehendabizi, buztinezko buru bat sortzen zuen amak. Buztinari forma ematen zion tarteka bere eskuak uretan sartuz eta buztina bigunduz. Forma batzuek zailagoak ziren beste batzuk baino, adibidez Nicolas untxiaren belarriak edo Otso Bishenteren mutur eta hortzak.

Buztinezko burua erabat leuna eta bukatua zegoenean, aitak eskaiolazko molde bat egiten zuen. Prozesu hau zaila zen, izan ere eskaiolak buztinaren forma hartu behar zuen, bere detaile guztiekin eta hautsi gabe.

Eskaiola moldea lehortzen utzi ondoren, paperezko tira piloa itsasten zituzten. Ez dut gogoan nork egiten zuen, aitak esango nuke, edo agian bien artean txandatu, kola, papera, kola papera amaiezina zen segida batean. Honen ondorioz, buztinezko buruaren forma zuen paperezko burua sortzen zen. Harrigarria! Bukatzeko pintatzen zuen amak, eta hasierako buztinezko buru haietatik kolore bizidun panpinak sortzen ziren. Festa bat!

Nerabe izango nintzen Erreka Mari modu honetara jaiotzen zenean. Aurpegi urdin, erreka koloredun ile luze, urrezko orrazia eta tela txuri, berde, urdin jantzia. Eta ez, ez zen gure modukoa. Hasieratik hala izan zen, bizitza propioa zuen. Haurren, gurasoen, aitona-amonen erreferente, belaunaldiz belaunaldi, gaur arte.

Enkarni Gómez Genua

Patua Tolosan genuen zain


Hainbat urte generaman Euskal Herriko eskola eta lokaletan barrena, txotxongiloak bizkarrean. Eta orduan dei bat jaso genuen Tolosatik, gure jarduera artistikoa goitik-behera aldatuko zuen deia.

En 1982 la Caja Provincial de Gipuzkoa quiso promocionar una actividad cultural en Tolosa. Julio Abad de la Caja de Ahorros y Antxón Elósegui, Presidente del CIT, hablaron de la posibilidad de hacer algo para los niños y niñas y nos pusieron en contacto con Miguel Arreche de Tolosa, muy aficionado al Teatro. Nosotros ya llevábamos 12 años trabajando por Euskadi y acabábamos de volver de Tarrasa (Cataluña) de una Muestra de Teatro de Títeres del Estado español donde habíamos ganado un premio y conocido a diversas Compañías. Comunicamos nuestra experiencia y nuestro entusiasmo a Miguel Arreche, nos pusimos las pilas y Miguel, con nuestras orientaciones a la hora de elegir los posibles grupos, y junto a compañeros y compañeras de Tolosa, celebramos en 1983 el Primer Festival de Títeres de Tolosa (en el 2000 se le bautizó como Titirijai). Participaron 7 buenas compañías y tuvimos el honor de que nuestro grupo lo inaugurara en el Teatro Iparragirre poniendo en escena nuestro montaje, Printze Txikia, adaptación del cuento de Saint Exupery. Ese títere ocupa hoy en día un lugar en el Museo del TOPIC.

Y poco a poco la gente de Tolosa iba esperando la llegada del Otoño con otra alegría. Porque a finales de Noviembre puntualmente llegaban los títeres. De diferentes estilos, de distintas procedencias y muchos de ellos antes de marcharse nos dejaban algún títere “para cuando construyais el museo”. Y esa idea iba calando en nosotros. Gestiones por aquí, convencer a los políticos del interés del tema, negativas por allá, falta de dinero. Nuestra ayuda era cada vez menos necesaria. Allí estaban para llevarlo adelante Miguel Arreche, Idoya Otegui, Txetxo Gaztañaga, Shole Martín, Santi, Arantza Larrañaga, Asun Vildarraz y un pequeño grupo. Algunos han ido desapareciendo por diferentes motivos. Nosotros hemos continuado ahí. Cada Titirijai cuenta con nuestra presencia y cuando necesitan algo de nosotros nos encuentran enseguida.

Desde el principio los asistentes al Festival, además de los niños y niñas de Tolosa muchos de la provincia se han beneficiado de la oferta cultural que se les ofrecía cada año, y más todavía cuando EL TOPIC (Centro Integral de la Marioneta) se puso en marcha.

Manolo Gómez



A los pocos años de comenzar el Titirijai, empezamos a idear el Centro Internacional de la Marioneta de Tolosa. Enkarni, que no había dejado de participar de forma importante en el Titirijai, volvió a ser ese “perejil” que Argiñano pone en todos sus platos, leyendo los proyectos que Miguel Arreche y yo misma preparábamos y haciendo sus aportaciones, sobre todo en la parte pedagógica, su especialidad.

El 26 de noviembre del 2009, fecha en la que no podían faltar Enkarni y Manolo, se inauguró el Centro y ellos representaron su espectáculo más emblemático “Erreka Mari” con acompañamiento de txalaparta, Itziar Jauregi, Lara Mitxelena. Pero antes, en el proceso, mediante un concurso entre los Centros Educativos del País Vasco, para seleccionar la mascota del TOPIC, el ganador resultó el dibujo del azkoitarra Urtzi Odriozola. Enkarni se ofreció a transformar el dibujo de ese niño en la marioneta que conocemos como Mariona, tan querida por los niños y niñas tolosarras y visitantes.

Enkarni forma parte fundamental del TOPIC. Sin ella, sin su asesoramiento, sin su entusiasmo y generosidad, sería otra cosa muy diferente del referente que ha llegado a ser. Gracias querida Enkarni por todo lo que has dado a nuestro TOPIC.

Idoya Otegui

Aipatzen ari garen TOPIC, Tolosan kokatua, munduan dagoen Txotxongilo Zentrorik inportanteenetakoa da. Museo bikaina dauka, 250 lagunentzako Auditorioa, Dokumentazio Zentro digitalizatua, txotxongiloak egiteko tailerrak, txotxongiloen ikuskizun ugari, ikasleen bisitak eta ikertzaileei ostatu emateko apartamentua eta abar.

Halere, bizitzan dena ez da gozamina eta arrakasta. Gutxien espero duzunean agertzen da oinazea. 2013ko urriaren 11n betirako joan zitzaigun Miguel Arreche. Bizi izan zen bezala joan zen. Urakana bezala, gu txundituta eta bihotzeko minez utzita.

Jakina da COVIDak gauza latzak eragin dituela pertsona askoren gan. Idoyari bere lana aurrera eramateko, oraingo, indarra kendu dio.

Eta haize hotz batek, tamalez, gugandik urrun eraman zituen Karmele Cruz eta Maria San Sebastián, Topic-eko Pedagogia Saileko eta Museoko arduradunak. Ai!

Baina krisi handietatik indartuta ateratzen omen da. Eta ongiertoria eman diegu Estitxu Zaldua eta Juanjo Herrerori, TOPICeko zuzendari berriei.


Eta, istorio horrekin batera, beste gauza batzuk ere gertatu ziren. Hona hemen horietako batzuk:

Unión Internacional de la Marioneta, UNIMA (Praga, 1929)

Zer esan nahi dute sigla horiek? Mundu osoan barrena zabalduta dagoen elkarte da, UNESCOrekin lotua, eta txotxongiloen alde lanean ari dena. Lanak horrelakoak dira: Bazkide guztien elkar komunikatzea eta lan egitea erraztu; bazkideen prestakuntza aberastu; zenbait ekintzak interesgarriak antolatu: ikastaroak, ikerketak, eskolak, jaialdiak, hitzaldiak etab. UNIMA EUSKAL HERRIA den taldean, partaideetako bat naiz. Hasiera-hasieratik, eta 2007tik 2016ra presidente izateko ohorea izan nuen.

Bene-benetan katua berbetan. Lehen Hezkuntzan Dramatizazioa lantzeko Metodologia

Irakasleek gero eta interes handiagoa zuten ikasgelan Adierazpen Dramatikoa eta, bereziki, txotxongiloak erabiltzeari buruz. Baina ez zekiten ziur nondik hasi. Beste edozein ikasgaiaren gainean (Matematika, Ingurugiroa, etab.) bazituzten hainbat metodologia. Adierazpen Dramatikoari buruz, ordea? Ezer gutxi. Beraz, 1992tik aurrera nire lanean oinarritutako metodologia bat idatzi nuen, GIE kin batera eta Elkar etxeak plazaratu zuen. Alderdi pedagogikoaz gain, eskolan lantzeko ariketak txertatu nituen, argi utzita hori nire iritzia eta metodoa zela, eta irakasleek nahieran



erabili zezaketeela. 6 liburu burutu nituen guztira, 5.a eta 6.a Nekane Elizagaraterekin elkarlanean.

Eta 2009. urtean osatu egin nuen lan hori Erein etxearen eskutik, orduan argitaratu baitziren *Altxor bat eskuartean: Txotxongiloak* eta *Un tesoro entre las manos: Los Titeres* liburuak.

TEATRO ESTUDIO DE SAN SEBASTIAN, TESS. Horixe da Manolo Gómezek zuzentzen duen Antzerki Talde Afizionatua. 1965an sortu zen, eta 60 ikuskizun egin eta sari ugari jaso ditu bidean. 2021an, Reginako Antzoki Erromatarrean (Badajoz), Juan Mayorga saria jaso zuen antzerki afizionatuaren alde burututako lan apartagatik. Eta, 2022an, Max Saria irabazi zuten.

Eta, ipuinetako protagonista izateaz aparte, zer gehiago egin dezakete txotxongiloek?

Nik dudarik ez nuen: sekulako komunikabideak dira txotxongiloak. Horretarako zenbait ikerketa egin nituen, haietako bat Usurbilgo Udarregi ikastolan. Txotxongilo bakarrarekin joaten nintzen, Lehen Hezkuntzako lehen zikloko haurrengana. Mariaje, bertako irakasleak, ikerketa hura du hizpide:

80ko hamarkadan, sei-zazpi urte bitarteko haur talde batek ilusioz ekin zion irakurketa-idazketa prozesuari Udarregi ikastolan. Ez zen prozesu arrunta izan hura, ez horixe, Enkarniren eskutik izan baitzen, eta taldeak hasitako lana animatu eta motibatu zuten txotxongilo batzuk izan baitzituzten bidelagun.

Eta halaxe izan genuen Leire neskatila eta Kaximiro zezen marmartia ezagutzeko aukera. Bi txotxongilo horiekin harreman estu bezain maitagarria sortu zen, eta astero-astero, mezu, marrazki, ipuin eta era guztietako testuen trukea egiten genuen. Truke oparo horretaz gain, sarritan Enkarnik eta bere txotxongiloek gelan bisita egiten ziguten. Gu zain izaten gintuzten beti, noiz iritsiko irrikan. Gelako txoko txiki bat, bolantadun gortina berde batez estalia, txotxongiloen

eta haurren arteko harreman magiko haren lekuko izan zen: zenbat galdera, zenbat nahi, zenbat zalantza, bitxikeria eta sekretu.

Konfiantzako eta maitasunezko giro horretan, beti gogoratuko dugu gelako neskatxa batek zezen kexatiari kontatu/zuzendu zion konfidentzia: —"Kaximiro, sssshhh, gauzatxo bat esan nahi dizut. Oraindik inork ez daki, baina... amatxok ume txiki bat izango du".

Mariaje Otamendi. Udarregi ikastolako andereñoa

Ikertze. Hizkuntza artistiko konparatuen ikerketa. 1991-1999 San Telmon erakusketa

Enkarni eta ni 1986an ezagutu ginen, nire irakasle eta tesiko tutore izan zen Donostiako Irakasleen Eskolan.

1991n ni irakasle nenbilen eta Ikertze proiektuan parte hartzeko gonbita eman zidan. Ikertze Arteniño laborategiak jolaserako leku ziren. Bertan, eskoletatik zetozen neska-mutilekin doinumusika, ikusmenezko lengoia eta arte dramatikoa bat-batekotasuna lantzen ziren, horretarako aurkitu, sentitu eta hartu emanak sortuz. Esan daiteke, joko hezitzaileen ikerketa zentroa zela, hezkuntza eta kulturaren arteko mugak gainditzen zituena. Enkarni joko dramatikoko arduraduna izango zen bertan eta ni berarekin begiralea.

Oteizari asko gustatu zitzaion gure proiektua eta bere laguntza eduki genuen. Artista asko pasa ziren gure laborategitik neska-mutilekin euren ideiak konpartitzeko.

San Telmo Museoan 1994 artistek eta neska-mutiek egingdako Erakusketa harrigarria izan zen.

Luchy Mancisidor, Carolina López Landatxe, Zuriñe Adrada, Juan José Aranguren, Susi Muriel, Inma Eizagirre, Enkarni Genuak eta nik, elkarbanatutako sormen etapa bat izan zen. Amets polit bat.

Nekane Elizagarate

Jardunaldi Pedagogikoak Münsterko Unibertsitatearekin batera (Alemania)

1990an trukea egin zen Münsterko Elizbarrutiko Unibertsitatearen eta Donostikoaren artean. Hainbat irakasle jaso genuen hitzaldiak emateko gonbidapena. Hauxe zen nirearen izenburua: *Txotxongiloak ikastetxean: nola erabili, zergatik eta zertarako*. Hitzaldiaren ostean, txotxongiloen emanaldi xume bat egitea erabaki nuen. Hitzaldia bi orritan idatzi nuen, eta alemana ekarririk banatu genituen orriok ikusleen artean. Bitartean, euskaraz eta txotxongilo/objektu batzuen laguntzaz, nire burua aditzera ematen saiatu nintzen. Gero, Erreka Mari obra antzeztu nuen formatu txikian, alegia, etorkizunean benetan erabilgarri egingo zitzaidan neurrian. Eta alemanez esandako zenbait esaldi labur kenduta, lortu nuen euskaraz hango ikasle zein irakasleekin komunikatzea.

Donostiara itzuli ginenean, Elizbarrutiko Irakasleen Eskola itxiko zela jakin genuen. Istant batean antzeman nion zetorrenari. Alemaniara eramandako formatu txikia apur bat osatu, eta ikastetxetara eraman. Alemaniako atzerrian funtzionatu bazuen, logikoa zen Euskal Herrian gauza bera gertatzea. Eta esan eta egin. Eta urtetik urtera emanaldi desberdin bat eskatzen zidatenez gero, sorta txiki bat bildu nuen. Eskolako gelarik txikienean ere plazaratu zitekeena. Gaur egun 6 lan txiki/handi ditu sortak.

Txotxongiloak hara eta hona ibili dira Espainiar Estatuan barrena; putzuaren bestaldean, Mexikon (5 bider), Kuban (2 bider), Ekuadorren eta Ayuda en Acción taldearen proiektuetan, Miamin. Renault 12 autoa leporaino bete, eta Manolo eta biok joaten ginen gure hiru seme-alabekin. Erreka Mari, Martin, ardiak, Agustina eta Kattalin eta dekoratua ere animatu ziren abentura izugarri bat bizitzera: Altzairuzko oihala gurutzatu eta Ostravaraino heltzea. 5.000 km-ko joan-etorria.

Gure etxean, kotxea hartu, trastez topera bete eta norabaitera zen asteburuko planak. Kotxea trastez betetzea ez zen lan erreza. Gauza bakoitzak toki bat zuen derrigorrez. Hala izan ez balitz ez lirateke sartuko. Soluzio bakarreko puzzlea

osatzea bezala. Lan hori aitak egiten zuen, gainerako besteok panpinak, maletak, argiaren egiturak, soinuaren mahaia eta han zegoen guztia hurbiltzen genion.

Behin dena kargatuta, abiatzen ginen zegokion herrira. Euskal Herri osoan barna ibili ginen. Hasieran eskola txoko, eliz lokal, auzo elkarte eta abarretan jarri behar izaten genuen muntaia. Askotan antzerkia modu egoki batean egiteko prestatuak ez zeuden tokiak ziren. Horregatik, denetatik tokatzen zen: garbitu, leihoak kartulina beltzez estali, aulkiak jarri.

Euskal Herrian ez ezik estatuko hainbat toki bisitatu genituen, hala nola, modu puntual batean atzerrikoak.


Horien artean berezia, Txekoslovakiara bidaiatzen izan zen Erreka Mari eraman genuen. Kotxea dena topera. Erreka Mari eta Martinen ardiak gauza guztien gainean jarrita. Hiru egun behar izan genituen Austria eta Txekoslovakiaren arteko mugara iristeko.

Ostravako txotxongilo taldearen eskutik ibili ginen harat eta honat. Nahiz eta Erreka Mari euskeraz aritu, haurrak adi-adi egoten ziren. Erreka Mari izan da guztien artean leku gehiagotara iritsi dena. Izan ere, ez zen gure modukoa!

Enkami Gómez Genua

Aurreko guztia irakurrita, badirudi lan eta lan besterik ez dugula egin. Ezta pentsatu ere. Hona hemen zein izan den gure kuadrilla abentura askotan: Caminotarrak, Celaraintarrak, Lizarzatarrak eta Gomeztarrak: guztira 8 heldu eta 14 neska-mutil, makina bat bizipenek elkarturik. Bat esateko, Matxinbentako taberna bakarrean ikusi genuen nola zapaltzen zuen Gizakiak Ilargia. Gure haurrek ez zioten jaramon handiegirik egin. Hala ere, haletako neska batek,

maitasunez eta nostalgia apur batez gogoratzen ditut Huizin igarotzen genituen oporrak. Herrixka horretan 4 familia biltzen ginen. Eta euskaraz ondo pasatzea zen helburua. Etxe erraldoi eta hotz batean bizi ginen, eta gure gurasoen



irudimenari, naturari eta moldatzeko grinari esker, primeran pasatzen genuen. Enkarnik jarduera mordoa antolatzen zigan: eskulanak, antzerkia, abestien lehiaketa... Mikrofonoa (eskoba tuneatu bat zen) martxan ipintzen genuen gure etxe pareko zelaian. Herriko umeak ikusle izaten genituen hasieran; baina, azkenerako, bat egiten zuten gurekin. Barraskilo lasterketa gurasoek egindako banderatxoekin, errekarra buelta, bildutako harriak margotu, Albiasuko talaia. EZIN AHAZTEKOA. A zer zortea hainbeste pasadizo elkarrekin igaro izana!


Marta Camino

Y queda algo que contar que ocupa un importante lugar en nuestra vida. La llegada hace 40 años desde California de una jovencita que vino a estudiar, pero que se convirtió en nuestra hija y hermana, STACEY TRIPLETT.

Recuerdo que su integración en el núcleo familiar fué perfecta como la de ficha de puzzle complejo como compleja es nuestra unidad familiar. ¡Ah! Y el día que subió al Txindoki y su cara de espanto a la bajada. En el diario de esa época que conservo, se trasluce todos estos atributos que a continuación enumero y que han sido determinantes para que forme parte de la familia con plenos derechos: Sentido del humor. Compromiso. Lealtad y Confianza.

Juan Gómez Génua

Aitak argazkiak ateratzeko zaletasuna zuen. Gure etxean argazkietan gordetzen ditugu haurtzaroko lehenengo oroitzapenak, txuri-beltzean. Txindoki magalean dugu Enkarni arrebak eta biok bat. Iturriotzetik Erriorako bidean, Zelatunen, Juan anaiarekin beste bat dugu. Eta Adarran, Aizkorrin, Igaratzen... Gero, txuri-beltzetik koloretara pasa ziren argazkiak: neguko elur txuria Urbasan; udaberriko loreen koloreak Siasoron eta Andian; udako belar horizta; eta udazkeneko okreak Aralaren. Koloretako argazkietatik diapositibak egitera pasa zen aita, eta orduan Pirinioetara joaten hasi ginen. Lapazarra, Lakora, Arlas, eta, nola ez, Hiru Erregen Mahaiko tontorrek zapaldu genituen. Tontorrean, beti, familia argazkia. Haur izatetik, nerabe izatetik, eta gazte



izatetik heldutasunera pasa ginenean, gure bikoteak bosteko taldera biltzen hasi ziren. Orduan, Chipeta, Montardo, Faja de Pelay, Taillon, Ordesa eta beste hamaika txoko eder ezagutu genituen. Ez dakit noiztik dugun lotura mendiekin. Nik esango nuke amak eta aitak jaio ginenetik oparitu zizkigutela mendiak.

Manu Gómez Genua

Eta bukatzeko, Txindokiko puntatik besarkada haundi bat bidean lagundu didazuen guztioi. Denok ez zaudete liburuxka honetan baina bai nere bihotzean.

Une gogoangarriak



Argazkiak: Familiaren artxiboa.



Tolosa, 2013 Topic. Txotxongillo Taldearen erakusketa.



Donostia, 1945. Enkarni Genua Espinosa (1942-4-15).



Donostia, 1945. Gurasoekin: José Genua Bidegain, Ursula Espinosa Sorrigueta eta Pili Genua Espinosa ahizparekin.



Mendian, 1963 Auzoko lagunekin.



Donostia, 1964. Udaberriko Jaiak.



Donostia, 1963. Luises del Antiguu. Antzerkia egiten.



Donostia, 1962. Ezkerretik hasita, Enkarni Genua, Lurdes Ochoa, Luchy Zabaleta, Pili Abarca, Juana Mari Unanue. Antzerkia egiten.



Donostia, 1965. Gure ezkontza. Manoloren gurasoak: Gabriel Gomez eta Encarnación Martínez, eta nire gurasoak.



Amezqueta, 1970. Gure hiru seme-alabak eta Jon Ander Amundarain. Bere etxean euskara ikasten.



Mendizorrotz, 1971. Enkarni Gomez Genua, Manu Gomez Genua eta lagunak. Mendira igotzen.



Huizin, 1972. Lagunekin euskaraz jolasten.



Mendian, familia osoa.



Bilbo, 1976. Telenorte. Haurrentzat euskaraz egindako lehendabiziko saioa. Zuzendaria: Xabier Kintana.



Ataun, 1977. Joxe Miguel Barandiaran Sugea *gizona eta azeria* ikustera joan zen.




Donostia, 1978. Erreka Mari eta Martin. *Erreka Mari Euskalherriko azken laminaren* estreinaldia.



Donostia, 1978. Agustina eta Kattalin. *Martinen bizilagunak*.



Donostia, 1982. Stacey. Kaliforniatik etorritako ikasle bat, gure alaba bihurtu zena.



Tolosa, 1983. *Printze txikia*. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiaren inaugurazioa.



Donostia, 1986. Musika Hamabostaldia. El retablo de Maese Pedro. Euskadiko Orkestra. Zuzendaria: Cristobal Hafter.



Tolosa, 1988. *Altxor bat patrikan* ikuskizuna. Aupi eta Puaf.



Mexiko, Tlaxcala, 1991. Neska-mutitez inguraturik.



Donostia, 1990. Manolo eta biok.



Ecuador. Turucucho. Famili osoa txotxongilo emanaldia ikustera joaten.



Donostia, 2007. Victoria Eugenia Saria.



Tolosa, 2009. TOPIC. Mariona.



Tolosa, 2010. Ezkerretik hasita, Manolo Gomez, Margareta Nicolescu, Miguel Arreche, Ana Arreche, Idoya Otegui, Jokin Bildarratz eta ni.



Donostia, 2012. Bilobekin. Ezkerretik hasita, Nicolas, Elai, Lautaro, Mattin, ni, Beñat, Manolo eta Gabriel.



Donostia, 2012. Larramendiko Olentzero.



Donostia, 2013. *Danborren Hotsa* ikuskizuna. Estreinaldia.



Donostia, 2013. Hiritar Merezimenduaren Domina. Izagirre alkate jauna, Enkarni Genua, Manolo Gomez.



Brusela, 2013. Europako Parlamentua. Enkarni Genua, Mariona, Txirene.



Donostia, 2014. Gure urrezko ezteiak. Etxeko txiki guztiekin. Gureak eta nere ahizparen ilobak.



Donostia, 2014. Gure urrezko ezteiak. Familiako helduak.



Donostia, 2014. Teatro Estudio San Sebastian.



Donostia, 2014. Pili Genua eta Miguel Celarainen urrezko ezteiak.



Tolosa, 2018. Iparragirre txotxongiloa berriro etxean.



Madrid, 2019. Jornadas Internacionales de la Marioneta.



Galtzerdimuino, Oiartzun, 2021. Gure seme-alabekin Txotxongillo Taldearen 50. urteurrena ospatzen.



Tolosa, 2021. Topic. 50. urteurrenaren omenaldia.



Casas de Reina (Badajoz). Teatro romano, 2021. Manolo Gomez "Juan Mayorga" Saria jasotzen.



Donostia, 2021. Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen eskutik Adiskide Numerario izendapena jasotzen.



Bilbo, 2021. Max Saria. Manolo Gomez eta Enkarni, Jose Ramon, Alejandro, Mari Karmen, Esther.



Berriz (Bizkaia) 2022. Lorategi Botaniko-Historikoak Erreka Mariri egindako omenaldia.

Bibliografia

ESTREINALDIAK (ENKARNI GENUAREN TESTUAREKIN)

- 1971, **Txispa eta bere lagunak ikastolan.**
- 1972, **Txispa eta Kattarina txanogorritxoren ipuinean.**
- 1973, **Aupa txoruak!**
- 1973, **Altxa Felipe tru la lai!**
- 1974, **Joxepa eta Jaxinto.**
- 1976, **Sugea, gizona eta azeria** (Joxe Migel Barandiaranek jasotako alegia).
- 1978, **Erreka Mari, Euskalerriko azken lamina.**
Musika. Herrikoa.
Musika zuzenean, Txalaparta: Itziar Jauregi eta Lara Mitxelena.
- 1979, **Zezena Plazan** (Xenpelarrek idatzitako bertsoan oinarrituta).
- 1981, **Behin batean Txindoki maldan** (Fernando Amezketarraren gertakarietan oinarrituta).
- 1983, **Printze Txikia.** (Saint Exuperyk idatzitako ipuinean oinarrituta).
Musikatua.
Musika zuzenean:
– Et Incarnatus orkestra.
– Amadeus Orkestra.
– Anne Landa. Soinua.
- 1985, **Ipurtargi.**
- 1986, **Erreka Mari, Euskal Herriko azken lamina.** Opera.
Musika: Juan Cordero Castaño.
Testua: Enkarni Genua.
Dekoratua: Tomás Hernández.
Jantziak: Mikel Lizarza.
Orkestra: Euskadiko Orkestra

- 1989, **El retablo de Maese Pedro.**
Testua: Miguel de Cervantes.
Musika: Manuel de Falla.
Orkestrak:
– Madrilgo Reina Sofia Orkestra.
– Euskadiko Orkestra, Cristobal Hafterrek zuzenduta.
Txotxongiloen jantziak: Pilar Genua Bidegain.
- 1990, **Erreka Mari, *Formatu txikia.***
Musika. Herrikoia.
Musika zuzenean: Txalaparta: Itziar Jauregui eta Lara Mitxelena.
- 1990, **Itsasminetz** (Zumaiako Joxe Mancisidor urpekariaren bizitzan oinarrituta).
- 1991, **Sugea, gizona eta azeria. *Formatu txikia (Zenbait euskal ipuinetan oinarrituta).***
- 1993, **Herensugea** (Euskal Mitologiako pertsonaian oinarrituta).
- 1994, **Galtzagorriak** (Zenbait euskal ipuinetan oinarrituta).
- 1995, **Itsasminetz.** *Formatu txikia.*
- 1997, **Eman eta Gero.**
- 1999, **Kattalin Txiki.**
Testua: Jose Ignazio Ansorena.
Musika: Tomas Aragües.
Txotxongilogile: Tito Saavedra eta Txotxongillo Taldea.
- 2002, **Ku-ku aitonaren erlojua.**
- 2005, **Bakarrik nago?**
- 2006, **Zergatik bizi da basoan Txanogorritxoren amona?**
- 2010, **Elurrezko Panpina.**
Musika:
– Anne Landa. Soinua.
– Elai Gomez Maiz. Soinua.
– Miren Zeberio. Biolina.
- 2013, **Danborren hotsak.** (1813ko Donostiako setioan eta hondamen-dian oinarrituta).
Musika: Sarriegiren zenbait martxa.
- 2020-2021, **Marionarekin hizketan.** 14 bideo.
- 2020, **Poesiaren bideak.**

ARGITALPENAK / PUBLICACIONES¹

Ipuinak

- Sugea, gizona eta azeria*. Txotxongilo gidoia. Ipurbeltz. Erein, 1978.
- Behin batean Txindoki maldan*. Txotxongilo gidoia. Ipurbeltz. Erein, 1978.
- Erreka Mari, Euskal Herriko azken lamina*. Ipuina/komikia. Erein, 1979.
- 1980 Zezena plazan*. Ipuina/komikia. Erein, 1980.
- Iputargi: Txori txiki polit bat*. Ipuina/komikia. Erein, 1986.
- Iputargi: Hondarrezko gaztelua*. Ipuina/komikia. Erein, 1986.
- Altxor bat patrikan*. Ipuina/komikia. Erein, 1988.
- Iputargi: Azken eta Putz sagutxoak*. Ipuina/komikia. Erein, 1989.
- Iputargi: Udazkeneko haizea*. Ipuina/komikia. Erein, 1989.
- Itsasminez*. Ipuina/komikia. Erein, 1990.
- Herensugea*. Ipuina/komikia. Erein, 1993.
- Zatoz*. Marrazkiak: José Gastón Majarenas. Tolosa: Centro de Iniciativas de Tolosa, 1993.
- Galtzagorriak*. Ipuina/komikia. Erein, 1994.
- Orain... gure txanda da*. Txotxongiloen azalpenak. Marrazkiak: Jose Gastón Majarenas. Tolosa: Centro de Iniciativas de Tolosa, 1997.
- Ku-ku Aitonaren erlojua*. Ipuina. Desclee de Brouwer, 1998.
- Eman eta gero*. Ipuina. Marrazkiak: Jon Zabaleta. Erein, 1999.
- Munstroak eta lagunak*. Ipuina. Erein, 2001.
- Zatoz lehenbailehen*. Ipuina. Marrazkiak: Jesus Lukas. Erein, 2004.
- Kontu kontari. Zenbait artistek gure galderak erantzuten dituzte*. Erein, 2007.
- Mahatsak eta neskatilak ondu zireneko uda*. Ipuina. Marrazkiak: Karmele Cruz. Erein, 2010.

1. Ereinen argitaratutako ipuin gehienetan Jesus Lukasek marraztu ditu.

Txotxongiloa eta antzerkia

Gerta daiteke. Nafarroako Antzerki eskolan saritua. Iruñako Udala, 1998.

Zabaldu Oihala. Antzerkia egiteko gidoia eta orientabideak. Gidoia eta orientabideak. Marrazkiak: Concetta Proba. Erein, 2001.

Ostiralero afaria. Helduentzako antzerkia. Saritua. Kutxa, 2001.

Elurrezko Panpina. Gidoia eta orientabideak. Erein, 2005.

Katu guztiak ez dira gaiztoak. Gidoiak eta orientabideak. Erein, 2005.

Zergatik bizi da basoan txanogorritxoren amona? Gidoia eta orientabideak. Marrazkiak: Jon Zabaleta. Erein, 2006.

Txotxongilo teoria

Txotxongiloa eskolan. Gidoiak + azalpen teknikoak. Erein, 1982.

Antzerki-Txotxongillo. Gidoiak eta txotxongiloak egiteko teknikak. Eusko Jauriaritza, 1983.

Bene benetan... katua berbetan. Dramatizazioa. 6 lan koadernoak.
Marrazkiak: Jose Gaston Majarenas eta Edurne Tejada. Elkar argitaletxea, 1992-1994.

Kalean gora, kalean behera. Euskeraz jolasteko materiala (2 Lib.).
Marrazkiak: José Gastón Majarenas. Edurne Tejada. Elkar argitaletxea, 1995-1996.

Txotxongiloak: Altxor bat eskuartean. Istorioa. Programazioa.
Txotxongiloak egiteko teknikak. Marrazkiak: Karmele Cruz. Erein, 2009.

Monografikoak

Pequeñas historias de un Gran Festival. Tolosa: Topic, 2019.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

Amonaren ipuinak: haurrak euskalduntzen bideoaren bidez. Txotxongiloen gidoiak. Eusko Jauriaritza, 1983.

Marionarekin hitz egiten [16 bideo], 2021.

ITZULPENAK

Qui vulgi jugar, que aixequi la ma. *Irakaskuntzarako materiala (2 ale)*
Ediciones 62, 1992.

Obras para Títeres de Enkarni Genua. *Ed. Teatro Arbolé y Cultural*
Caracola, 2001.

Primer Acto. Todos los viernes cena. Premio Kutxa. Cuadernos de
Investigación Teatral n.º 289, 2001.

Un Tesoro en nuestras manos. *Erein, 2007.*

DISKOAK

(Grabatutako disko guztietan AITOR AMEZAGAK zenbait kanta eta musika
sortu ditu).

Erreka Mari. OTS7HG Beobide argitaletxea, 1978.

Printze txikia. [Long play eta kasetean] IZ argitaletxea, 1984.

Zezena plazan. [Long play eta kasetean] IZ argitaletxea, 1984.

Erreka Mari. [Long play eta kasetean] IZ argitaletxea, 1985.

Sugea, gizona eta azeria. [Long play eta kasetean] IZ argitaletxea,
1985.

Sar dadila kalabazan [8 disko eta kasete]. Disko bakoitzean bi ipuin
daude gai zehatz baten inguruan: Etxea, Itsasoa, Zuhaitza, Erlojua,
Garraioak, Gorputza... IZ argitaletxea, 1985-1989.

Ipurtargi I. [Long play eta kasetean] IZ argitaletxea, 1986.

Altxor bat patrikan. [Long play eta kasetean] IZ argitaletxea, 1987.

Ipurtargi II. [Long play eta kasetean] IZ argitaletxea, 1988.

Txotxongillo kanta sorta. [Long play eta kasetean] IZ argitaletxea, 1988.

Xirimiri kanta sorta. [Long play eta kasetean] IZ argitaletxea, 1991.

Kuttun-kuttuna. [2 Long play eta kasetean] IZ argitaletxea, 1991.

25 urte zuekin [CD]. IZ argitaletxea, 1996.

Hemeroteka

Donostiako Udal Liburutegian, 1971. urtetik 2004. urte bitartean, prentsan azaldutako aipamen eta elkarrizketak kontsultatu daitezke. 800 sarreratik gora daude.

1991 eta 2018. Urte bitartean, Diario Vasco egunkarian Titirijai jaialdia-
ren inguruko artikuluak.

Jasotako hainbat sari eta errekonozimendu

1980. Premio Ercilla. Bilbao.

1983. Mostra de Titelles de l'Estat Espanyol. Erreka Mariren eszenografiarengatik. Tarrasa.

1985. Haur Musika (Opera). I. lehiaketa. Erreka Mari: Musika: Juan Cordero Castaño. Gidoia: Enkarni Genua.

1997. Gerta daiteke. Umeentzako antzerki testuen lehiaketa. Nafarroako Antzerki Eskola. Iruñea.

2001. Ostiralero afaria. Antzerkia. Donostia Hiria Literatur Saria. Kutxa. Donostia.

2007. Victoria Eugenia Saria. Ibilbidea. Donostiako Feria.

2008. Ohorezko laguna. Topic. Tolosa.

2013. Hiritar Merituari Domina. Donostiako Udala.

2021. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Kide Numerarioa.

2021. Premio Ángeles Gasset. Titiricuenca.


2022. Eusko Ikaskuntza. Manuel Lekuona Saria.

Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria jaso duten pertsonalitateak /
Personalidades galardonadas con el Premio Manuel Lekuona de Eusko
Ikaskuntza:

- 1983. Manuel de Lekuona
- 1984. Odón Apraiz
- 1985. P. Jorge de Riezu
- 1986. Andrés de Mañaricua y Nuere
- 1987. Justo Gárate
- 1988. Manuel Laborde
- 1989. Eugène Goyheneche
- 1990. Gerardo López de Guereñu Galarraga
- 1991. Carlos Santamaría Ansa
- 1992. Bernardo Estornés Lasa
- 1993. Francisco Salinas Quijada
- 1994. Xabier Diharce “Iratzeder”
- 1995. Adrián Celaya Ibarra
- 1996. Jorge Oteiza Embil
- 1997. Micaela Portilla Vitoria
- 1998. José María Jimeno Jurío
- 1999. Piarres Charriton
- 2000. José Miguel de Azaola Urigüen
- 2001. José Ignacio Tellechea Idígoras
- 2002. Armando Llanos Ortiz de Landaluze
- 2003. Jesus Atxa Agirre
- 2004. Jean Haritschelhar
- 2005. Elías Amézaga Urzélaga
- 2006. Menchu Gal
- 2007. Sabin Salaberri Urzelai
- 2008. Montxo Armendáriz
- 2009. Txomin Peillen Karrikaburu
- 2010. Jose Antonio Arana Martixa
- 2011. Jose Luis Ansorena Miranda
- 2012. Soledad Silva y Verástegui
- 2014. Antxon Aguirre Sorondo
- 2015. Joan Mari Torrealdai
- 2016. Jean Louis Davant Iratzabal
- 2017. Fermín Leizaola Calvo
- 2018. Mari-Jose Azurmendi Ayerbe
- 2019. Xabier Amurza
- 2020. Jose Ramon Etxebarria
- 2021. Jon Bagüés Erriondo
- 2022. Enkarni Genua Espinosa

2022

MANUEL LEKUONA Saria
Premio MANUEL LEKUONA



EUSKO
IKASKUNTZA
Asmoz ta Jakitez

